


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

K.o. 64. URTEKO SUTE

HANDIA:

JATORRIARI BURUZKO TEORIAK ETA SUTEAREN
ONDORIOAK



Ikaslea: Oier Lasa Ureta

Gradua: Historia, 4. maila

2021/2022 Gradu Amaierako Lana

Irakaslea: Denis Álvarez Pérez-Sostoa

Ikasketa Klasikoak Saila

LABURPENA:

K.o. 64. urtean Zirko Maximoaren guneak su hartu zuen eta hau hedatuz joan zen Erromako zati handi batera zabalduz. Hiriaren historiako sute nagusiena bihurtu zen, Antzinako Erroma betirako aldatu zuen gertakaria bilakatuz. Gaur egun ez dago argi zein izan zen sutearen eragilea eta lau teoria ezberdin plazaratzen dira: Neronen aginduz aurrera eramandako plana izatea; nahigabe hasitako sutea izatea; kristauak sustatutakoa izana; edo Pisonen konspirazioaren kideek egindakoa izatea.

Sutea botere politikoa handitzeko erabili zuten: Neronen kontra zeudenak enperadorea jarri zuten errudun gisa, honela bere agintaldia gehiago desegonkortzeko asmoz; berriz, printzeak, kristauei leporatu zien errua, hauen kontrako errepresio handi bat martxan jarritz.

Suteak ondorioak garrantzitsuak ekarri zituen: hiria suntsituta geratu zen eta berreraikuntzak betirako aldatu zuen Erromako itxura; Neronek *Domus Aurea*ren eraikuntza burutu ahal izan zuen, luxuz beteriko jauregia zena; eta inperioak K.o. 64. urteko diru-erreforma zela-eta sufritzen hasi zen krisi ekonomikoa areagotu zuen. Epe luzera gertaera honek Neronen gobernuaren ezegonkortu zuen, K.o. 69. urtean enperadoreak bere buruaz beste egitera helduz, era honetan dinastia Julio-Klaudiarraren agintaldia amaituz.

Hitz gakoak: *Neron, Erroma, sutea, kristauak, Domus Aurea.*

ABSTRACT:

In the year 64 A.D. the area of the Circus Maximus caught fire, which spread to a large part of Rome. It became the most important fire in the history of the city, an event that definitively changed Ancient Rome. Still today it is not clear what caused the fire and four different theories are proposed: that it was a plan carried out on Nero's command; that it was a fire started unintentionally; that it was promoted by Christians; or that it was set by members of Pison's conspiracy.

The fire was used to increase political power: those who opposed Nero put the emperor as guilty in order to destabilize his mandate, while the prince accused Christians by launching a major repression against them.

The consequences of the fire were very important: the city was destroyed and the reconstruction changed forever Rome's topography; Nero was able to complete the construction of the *Domus Aurea*, a luxury palace, and the fire increased the economic crisis that the empire began to suffer as a result of the monetary reform of the year 64 A.D. In the long term, this destabilised Nero's government, and the emperor committed suicide in 69 A.D., thus ending the rule of the Julio-Claudian dynasty.

Key words: *Nero, Rome, fire, christians, Domus Aurea.*

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. KONTESTU HISTORIKOA	5
3. K.O. 64. URTEKO SUTEA.	6
3.1. Aurrekariak	6
3.2. Nola, non eta noiz eman zen?	6
3.3. Jatorriaren teoria ezberdinak	9
3.3.1. Neronen aginduz aurrera eramandako plana	9
3.3.2. Nahigabe emandako sutea	13
3.3.3. Erromako lehen komunitate kristauak sustatua	14
3.3.4. Pisonen konspirazioaren kideek egindakoa	18
4. SUTEAREN ONDORIOAK ERROMAKO HIRIAN ETA INPERIOAN	19
4.1. Hiriko topografiaren aldaketa:	
berreirakuntza eta <i>Domus Aurea</i> ren eraikuntza	19
4.2. Inperioaren krisi ekonomikoa	23
5. ONDORIOAK	26
6. BIBLIOGRAFIA	28
6.1. Bibliografia modernoa	28
6.2. Iturri klasikoen edizioak	29

1. SARRERA¹

K.o. 64. urteko uztailaren 19an Erromatar Inperioaren hiriburua suntsitu zuen gertaera bat eman zen: Erromako sute handia. Nahiz eta historian zehar hiriak askotan hartu zuen sua, kasu honek ez zuen parekorik izan. Iturri klasikoen arabera, galiarrak Erromara sartu zirenetik hiriburuak ez zuen honelako suntsipenik sufritu². Gainera, garaiko talde politikoek sutea aprobetxatu zuten propaganda egiteko, bere helburuak lortzeko asmoz. Neronen gobernuaren kontra zeudenek enperadorea jarri zuten hondamendi honen erruduntzat; printzeak, berriz kristauak jazarri zituen. Badaude beste teoria batzuk ere, baina gaur egun indar gehiena duena nahi gabe emandako sutea izan zenarena da. Hala ere, bai hiria, bai inperioa betirako aldatu ziren. Hiria topografikoki aldatu zen eta erre ziren auzoak berreraiki eta aldatu ziren. Hala ere, aldaketaren adierazle nagusia Neronek eraikitako *Domus Aurea* izan zen. Inperioak ezegonkortasun politiko handia izan zuen, jende askok ikusi zuen Neron errudun bezala, eta horren ondorioz, berari buruzko beste zurrumurru batzuk gehituta (bere ama Agripina hil zuenarena bezalakoa), printzearekiko oposizioak gora egin zuen. Honi txanponaren devaluazioa gehitu behar zaio, sutearen suntsiketak konpontzearen ondorio zuzen bat zena. Kristauekiko errepresioa oso handia izan zen ere, enperadoreak, bere bertsioa defendatzeko asmoz, talde honen kontra egin baitzuen. Egoera ezegonkor hau K.o. 69an amaitu zen, Neronek bere buruaz beste egin zuenean. Horrela bere erregealdiarekin eta dinastia julio-klaudiarra amaitu zen.

Lan honen bitartez K.o. 64. urteko sutea errepasatu nahi dut, lehenik eta behin garaiari kontestu historikoa emanaz. Ondoren sutea nola eman zen azalduz, era ahalik eta objetiboenean, hau da, gertaera hutsak deskribatuz. Hau egin eta gero, sutearen jatorriaren teoria nagusiak errepasatuko ditut. Amaitzeko, ondorio nagusiei buruz hitz egin dut, hauen artean hiriaren aldaketa topografikoa (berreraikuntza eta *Domus Aurea*ren eraikuntza) eta txanponaren devaluazioa azalduko ditut.

Lana aurrera eramateko iturri klasikoetaz eta bibliografia modernoaz baliatu naiz. Iturri klasikoen artean Tazito, Suetonio eta Dion Kasio dira suteari buruz informazio gehien eskaintzen dizkigutenak (lehenengoa objetiboena izanik). Bibliografia modernoaren

¹ Aipua egiteko Chicago estila erabili dut.

Portadako argazkiaren iturria (maiatzaren 11an ikusia): <http://www.hermanosdearmas.es/2018/07/18/18-de-julio-del-64-el-gran-incendio-de-roma/>.

² D.C. 62.18.2.

artean batez ere Pilar Fernández Urielen artikuloak erabili ditut, eta ondorio ekonomikoak aztertzeko Joaquín De La Hoz Montoyarenak.

2. KONTESTU HISTORIKOA

Neronen printzealdia trantsizio- eta krisi-aldi gisa har daiteke, eta, beraz, hartan gertatu ziren bilakaerak eta eraldaketak eragin handia izan zuten. Tentsio desberdinen artean presionaturik bizi zen Neronen garaiko gizartea: eragin erreformatzaileek antzinako tradizioei aurka egiten zieten. Inperioaren alde guztietatik zetozen esklabo, liberto, merkatariek... aurre egiten zieten patrizioei. Erljio eta ohitura erromatarrek ekialdeko filosofia eta erlijioekin lehiatu behar zuten. Hori dela eta, Neronen garaia Antzinateko interesgarrienetako bat da. Ez da Inperioaren hasiera, baina hura ere ez zegoen guztiz finkaturik, eta hasierako aldi baten amaieratzat ere har daiteke, non Augustok eta haren ondorengoek botere inperialaren oinarriak jarri baitzituzten³.

Neronen agintaldian eta enperadorearen aurkako mugimenduak hasi baino lehen, neronismoa garatu zen, adierazpen kultural, politiko, intelektual, artistikoen... multzo batean adierazi zena. Mugimendu kulturala eta politikoa izan zen eta honen influentzia erromatar kulturen errota zen denbora luzez, izan ere, Neronen ondorengoek erabili zuten ere. Ekialdeko ideia eta joerek influentzia handia izan zuten neronismoan, “Aula Neronianoan” islatuz. Adibidetzat jar dezakegu absolutismo teokratiko bat sortzearen saiakera, enperadorea jainkoekin parekatuz. Argi dago hau ekialdeko eta monarkia helenistikoetatik hartutako ideia zela⁴.

K.o. 64. urtea une arazotsua izan zen: Nerongo gobernuaren barne-ezegonkortasuneko etapa batetik igarotzen zen. Urte garrantzitsua zen Senekaren ideia politikoak⁵ eta «Aula Neroniana» ezartzeko. Aldi berean, neronismoaren inposaketaren aurkako lehen matxinada-agerraldiak sumatzen ziren, urtebete geroago azaleratu zirenak Pisonen konspirazioarekin⁶.

³ Fernández Uriel, P. 1991. “Nerón y neronismo. Ideología y mito”. *Espacio Tiempo y Forma. Serie II, Historia Antigua*, 4, 200.

⁴ Ibid., 201-202.

⁵ Senekak *Apokolokyntosis* eta *De Clementia* obretan esan zuen monarkia instituzio hoberena zela, beraz, Neronek. Ibid., 203.

⁶ Fernández Uriel, P. 1990. “El incendio de Roma del año 64 : una nueva revisión crítica.” *Espacio, Tiempo Y Forma. Serie II, Historia Antigua*, 3. 61.

Hala ere, K.o. 64. urtea izan zen Neronen kanpo-politikarako urte bikain eta distiratsuenetariko bat. Lorpen garrantzitsuak lortu ziren, hala nola erromatarren ezartzea Itsaso Beltz osoan, batez ere Ponto Polemoniakoan; itsasaldeko Alpeetako biztanleei hiritartasuna ematea; edo Etiopia meroitikoko Assum dinastiarekin behin betiko harreman komertzial diplomatikoa lortzea. Era honetan, erromatarrek Assab-eko portua erabiltzeko eta urre etiopiarrera iristeko aukera izan zuten⁷.

Erromatarren merkataritza-hedapena indartu egin zen Klaudiok hasitako Ostiako portuaren handitzea eta Averno lakuko portu militarra amaitu zirenean⁸.

3. K.O. 64. URTEKO SUTEA

3.1. Aurrekariak

Fundazio garaitik Erromak suteekin izan zituen arazoak, populazio dentsitatea oso handiak edo kaleen estutasunak, etxeen gertutasunak sortutakoa, faktore garrantzitsuak ziren. Baina, batez ere, eraikuntza material pobreak eta etxebizitzaren ezaugarriak, bereziki *insulaeak*, non zurezko solairuak gainjartzen ziren batzuetan altuera handia izatera iritsiz, izan ziren suteen arrazoi nagusiak. Erromatarrek momentura arte sufritu zuten sute famatuena K.a. 390. urteko uztailak 14an eman zen, galiarrek Aliako batailan erromatarrek garaitu ondoren hiriarri su eman ziotenean (Junoren antzar sakratuen zaingoari esker Kapitolioa salbatu egin zen). Augustoren printzipatuan Erromak su hartu zuen behin baino gehiagotan eta honen ondorioz, enperadoreak zaintza talde berezi bat sortu behar izan zuen, suari aurre egiten zionak suhiltzaileak heldu arte. Tiberioren garaian bi aldiz erre zen hiria, K.o. 27an (Zelio mendia izan zen kaltetu nagusia) eta K.o. 36an (Aventinoa eta Zirko Maximoaren zati bat erre ziren). Klaudioren garaian ere Emiliano auzoan sute bat eman zen K.o. 54. urtean⁹. Beraz, suteen arazoa oso normala izan zela ikusi dezakegu hiriaren historian zehar.

3.2. Nola eman zen?


Ez dago oso argi zer gertatu zen, autore klasiko ezberdinek emandako informazioa eskasa eta kontraesankorra baita eta, askotan ez direlako ados jartzen ez arrazoietan, ez

⁷ Ibid.

⁸ Suet. *Ner.* 6.31.3-4.

⁹ Picón García, V. 1998. "El incendio de Roma del año 64 d.C.", in *Momentos estelares del mundo antiguo*, ed. López de Juan & Plácido Suárez. Madrid: Ediciones Clásicas: Sociedad Española de Estudios Clásicos, 193-219.

iraupenean, ezta kalteetan ere. Dakigunaren arabera, sutea uztailaren 18tik 19ra bitarteko gauean gertatu zen, Zirko Maximoaren hego-ekialdean hasiera izanik¹⁰.




Sutearen lehenengo eguna. Iturria: Pollini, J. 2017. “Burning Rome, Burning Christians”, in *The Cambridge Companion to the Age of Nero*, ed. Shadi Bartsch, Kirk Freudenburg, & Cedric Littlewood, 215. Cambridge: Cambridge University Press.

Tazitoren hitzetan Zirkoaren zonaldean sortu zen, Palatino eta Zelio muinoetatik gertu, han zeuden dendetako merkantziek eta haizeak sua zabaldu zuten, Zirkoaren luzeera osoa estali zuena¹¹. Gainera, eremu horretan ez zegoen ezer sua oztopatzeko gaitasuna zuenik. Tirreniar itsasoari maiz erasotzen dioten bi haizeak Sirokoa (hegoalderantz jotzen duena) eta Libezioa dira (hego-mendebalderantz jotzen duena), eta haize hauek bat datozte Tazitok azaltzen duenarekin. Haizea hiriaren mendebaldera eta ipar-mendebaldera zabaldu zen, Foro Boarioa, Zelio eta Palatino muinoak eta Triunfoaren bidea zeharkatuz. Handik Muzio haranera jaitsi zen, Belia, Fagutal eta Oppius muinoetara helduz¹².

¹⁰ Tac. *Ann.* 38.1. Ikusi: Fernández Uriel, P. 1990. “El Incendio De Roma Del Año 64 : Una Nueva Revisión Crítica.” *Espacio, Tiempo Y Forma. Serie II, Historia Antigua*, 3 zb, 62.

¹¹ Tac. *Ann.* 15.38.

¹² Fernández Uriel “El Incendio”, 63.



Sutearen bigarren eguna. Iturria: Pollini, "Burning Rome", 217.

Gainera, honi hiriaren ezaugarriak gehitu behar dizkiogu, kale estuak eta etxadi irregularrak izateak suaren hedapenera lagundu baitzuen. Bai Tazitok eta Dion Kasiok deskribatzen dute zein izan zen jendearen jarrera egoera honen aurrean: ziurgabetasuna, esperientziarik eza, presaka ibiltzea, norberaz kezkatzea, lapurketetan ibiltzea... Hauek guztiek asko zailtzen zuten jendearen ebakuazioa, izan ere, asko asfixiaz edo zapalduta hil ziren¹³.

Neron, momentu horretan Anzion zegoen eta ez zen Erromara bueltatu sua bere etxera hurbildu zen arte. Baina etxeak eta inguruak erre egin ziren ere. Suaren ondorioz bere etxetik mugitu behar izan zuen jendearentzat Marteren zelaia, Agriparen monumentuak eta bere lorategi pertsonala ireki zituen enperadoreak. Honetaz aparte jende hura guztiz biltzeko eraikin inprobisatuak egin zituen eta hauek elikatzeko Ostia eta inguruko

¹³ Tac. *Ann.* 15.38; D.C. 62.16.3-7.

herrietatik biziraupen baliabideak ekarri zituen eta gariaren prezioa hiru sesterzioetara jaitsi zuen¹⁴.

Tazito eta Suetonio bat datoz sutearen iraupena zazpi gauetakoa eta sei egunekoa izan zela esatean¹⁵, berriz, Dion Kasiok ez du datu zehatzik ematen¹⁶. Tazitok idatzi zuen sutea Eskilinoko zonalde baxuan gelditu zela, hango eraikuntza asko eraitsi ondoren suaren biolentzia lasaitzeko asmoz. Hala ere, beste sute bat eman zen Emiliano auzoan, nahiz eta biktima gutxiago egon ziren. Hark jainkoen tenpluak eta portikoak suntsitu zituen. Bigarrenak zurrumurru asko sortu zituen, askok uste izan baitzuten Neronek egin zuela bere izena eramango zuen hiri berri bat fundatu nahi zuelako¹⁷.

Arkeologikoki demostratuta dago sutea gertatu zela¹⁸. Palatino muinoan ikusten da K.o. 64. urtetik aurrera suaren ondorioak konpontzeko hainbat ekintza burutu zirela eta errausketa ondorengo materiala berreskuratu ziren. Honetaz aparte, Neronen aginduetan eraikitako *Domus Aurearen* aztarnak aurkitu dira eta bere hedadura oso handia zela demostratu da¹⁹. Baina hiriko beste elementu batzuk aldatu ziren ere, adibidez, erromatar tradizioak fundazio garaian aipatutako ateetatik, bi gutxienez (*Portula Romanula* eta *Mugonia*) leku berean edo apur bat desberdina zen posizio batean berreraikitzen jarraitu zen, gutxienez K.o. 64. urteko sutea eman arte²⁰. Arkeologiak ere demostratu du Vestaren tenplua betirako aldatu zela sutearekin. Santutegian zegoen basoa (*nemus*) desagertu zen, Atenearen tenplu biribilari erantsitako Vestal Birjinen etxe handi baten mesedeetan²¹.

3.3. Jatorriaren teoria ezberdinak

3.3.1. Neronen aginduz aurrera eramandako plana

Iturri historiko gehienak Neron jartzen dute sutearen errudun gisa. Hau egia izan ezkeru bi proposamen lortzeko asmoz egin zuen. Alde batetik, hiria suntsitu zuen, errausen

¹⁴ Tac. *Ann.* 15.39.

¹⁵ Tac. *Ann.* 15.40.1; Suet. *Ner.* 6.38,2.

¹⁶ D.C. 62.17.1.

¹⁷ Tac. *Ann.* 15.40.

¹⁸ Hiriak jasandako aldaketak sakonago errepatatuko ditut 4.1. pasartean, baina hau hemen sartu dut sutea gertatu zela demostratzeko asmoarekin.

¹⁹ Gehiago jakiteko begiratu: Ferrandes, A.F. 2011. "Il contesto topografico e la stratigrafia", in *I segni del potere, Realtà e immaginario della sovranità nella Roma imperiale*, ed. Clementia Panella. Erroma: Sapienza-Università di Roma, 131.

²⁰ Papini, M. 2016. *Arte romana*. Milan: Mandatori Università, 181.

²¹ *Ibid.*, 206.

ganean berak nahi zuen Erroma berri bat eraikitzeke asmoz, *Neronia* izena eman nahi ziona. Bere aurrekarien etxeekin konparatuz, jauregi inperial handiago bat altxatu nahi zuen, printze helenistikoaren antzera²². Bestetik, Suetoniok azaltzen duen moduan, enperadorea sutea begiratzeko egon zen Mezenasen dorretik. Sugarren edertasunak txundituta, berak konposatutako poema abestu zuen, *Troiae Halosis* izenekoa, Ilioneko erorialdiari dedikatua zegoena, era honetan gertatzen ari zena iraganarekin konparatuz²³. Neurri batean posible da bigarren gertaera hau benetan gertatu izana, Neron arte-adierazpenengatik asko kezkatzen zelako, eszenatoki honetan heroi troiarrek izandako esperientzia apokaliptikoa bizitzeko aukera aurkituz. Hala ere, hau anekdotikoa da, bigarren mailakoa, eta ez du zerikusirik sutea berak eragitearen salaketa nagusien aurrean. Erabilitako iturri klasikoaren artean Neron salatzen dutenak Suetonio eta Dion Kasio dira; Tazitok, berriz, sutearen egiletzari buruzko iritzia argia ematea errefusatu du²⁴. Pliniok eta Pseudo Senekak (edo Oktavia tragediaren idazleak), sutearen garaikoak diren idazleek, enperadorearen erruari buruzko bi aipu txiki egiten dituzte ere²⁵.

Kontuan izan behar dugu Neron kontrobertsia handia sufritu duen pertsonaia historikoa dela. Antzinarotik Erromako Zesar gorrotagarrienetako bat bezala epaitua izan zen, tirano, kriminal eta biziotsuaren prototipoa izanik. Iritzi hau oso zabaldua zegoen historiografia klasikoan, ondoren historialari kristauek jaso eta berritsi zuten, era honetan Neronen inguruko ikuspegi negatiboa sustatuz²⁶.

Suetoniok kontatzen du hiria erretzea Neronen plan bat izan zela. Eraikin zaharren itsustasuna eta kaleen mehartasun eta zokoguneak jasan ezin zituelako aitzakian egin zuen. Gainera, era oso nabarmenean egin zuen, honen ondorioz, kontsul ohi batzuk ez zituzten gelditu haien etxean sartu ziren esklaboak, lastargiz eta iztupaz hornituta zeudenak. Honetaz aparte, Urrezko Etxearen alboan zeuden aletegi batzuk gerrako makinekin eraitsi zituzten (hormak eraikitzeke harrizko bloke lodiak erabili zituztelako), eta gero su eman zieten, lursailak lortzeko²⁷.

²² Fernández Uriel, “El Incendio De Roma Del Año 64”, 67.

²³ Suet. *Ner.* 6.38.2. Ikusi: Fernández Uriel, “El incendio de Roma del año 64”, 67.

²⁴ Fernández Uriel, “El incendio de Roma del año 64”, 68.

²⁵ Plin. *HN.* 17.5; Ps.Sen. *Oct.* 826-834.

²⁶ Fernández Uriel, “Nerón y neronismo” 200.

²⁷ Suet. *Ner.* 6.38.1.

Dion Kasiok dio enperadorearen desioa hiria eta inperioarekin amaitzea zela bera bizirik zegoen bitartean²⁸. Honetarako sekretuan gizonak bidali zituen, mozkortuta edo beste era bateko maltzurkerietan entretenituta egotearen itxura egiten zutenak, hiriko eraikin eta alde ezberdinetan suak sor zituzten. Soinuek eta irudipenek sortutako konfusioaren eta beldurraren ondorioz herriak ez zekien zer egin, era honetan arazoaren hasiera eta amaiera aurkitzea ezinezkoa egin zitzaion honi²⁹.

Tazitok Neronen errudutasunari buruzko iritzi argia ematea errefusatzeko du, bere pasarte nahiko objektiboa izanik. Honi buruz egiten duen erreferentzia argiena bigarren sutea azaltzean egiten du (Emiliano auzoan hasi zena), esanez honek zurrumurruak sortu zituela jendearen artean. Hauen ustez Neronek eragin zuen sutea, bere izena eramango zuen hiri berri bat sortzeko asmoz³⁰.

Gainera, Neronen errugabetasuna defenditzeko gehien erabilitako argumentu batzuk Tazitoren pasarte batean aurkitzen ditugu:

“Nerón, que en aquel momento se hallaba en Anzio, no volvió a la Ciudad hasta que el fuego se acercó a su casa, con la que había unido el Palacio y los Jardines de Mecenas. Pero no se logró detenerlo sin que antes devorara el Palacio, la casa y todos los alrededores. Sin embargo, para alivio del pueblo desplazado y sin hogar, hizo abrir el Campo de Marte y los monumentos de Agripa, e incluso sus propios jardines, y ordenó levantar construcciones improvisadas en las que acoger a aquella multitud sin recursos; además, se acarrearon subsistencias de Ostia y de los municipios vecinos, y se bajó el precio del trigo a tres sestercios. Aunque estas medidas buscaban la popularidad, no alcanzaron su fin, porque se había extendido el rumor de que, en el mismo momento en que ardía la Ciudad, Nerón se había subido al escenario que tenía en su casa y se había puesto a cantar la destrucción de Troya, comparando las desgracias presentes a los viejos desastres”³¹.

²⁸ Suetoniok ere aipatzen du hau. Elkarrizketa batean Neroni behin esan zioten “ni hilik egonda, lurra sugarren bazka izan dadila”, berak hau erantzuk zuen “hobeto esanda, ni bizirik nagoen bitartean”. Ikusi: Suet. *Ner.* 6.38.1.

²⁹ D.C. 62.16.1-2.

³⁰ Tac. *Ann.* 15.40.

³¹ *Ibid.*, 15.39.

Irakurtzen den moduan Neron ez zegoen Erroman momentu hartan, Anzion baizik eta ez zen hirira bueltatu sua bere etxera hurbildu zen arte. Honetaz aparte, Neronek eskainitako laguntzak oso onuragarriak izan ziren erromatar herriarentzako. Hala ere, populartasuna bilatzen zuten neurri hauek ez zuTen enperadoreak bilatutako emaitzarik izan, etxean zeukan eszenatokira igo eta Troiaren suntsiketari abesten hasi zenaren zurrumurrua zabaldu zelako, momentuko hondamendiak zaharrekin alderatuz³². Beraz, ikus dezakegu Tazitok eta Suetoniok koinziditzen zutela azken honetan, nahiz eta lehenengoak zurrumurru bati buruz hitz egin eta bigarrenak hau egiazkotzat eman, era honetan agerian utziz Tazito Suetonio baino objetiboagoa dela.

Neronek ekintza erlijiosoak burutu zituen sutea berak eragina izatearen zurrumurrua gaintik kentzeko. Jainkoei egindako ordainketetara jo zuen, baita liburu sibilinoetara ere, zeinaren bidez Vulkanori, Zeresi eta Proserpinari erregu egin baitzitzaien. Era berean, emaginen karguz gurtza bat zuzendu zitzaion Junori, lehenik Kapitolioan eta gero itsaso hurbilenaren ondoan, handik ura atera zen, tenplua eta jainkosaren irudia bustitzeko. Azkenik, senarra zuten emakumeek selisternioak eta *vigiliak* ospatu zituzten. Hala ere, Tazitoren hitzetan neurri hauekin eta aurrekoekin ez zuen indarra galdu sutea ordenatua izan zelaren usteak³³.

Ikusitako iturri klasikoetaz aparte, badaude Neronen garaikoak diren sutearen inguruko bi aipu: Plinio Zaharrarena eta Oktavia tragedian agertzen dena. Plinio Zaharrak aipu txiki bat egiten dio suteari. Hau egiten du kontatzean Geo Domiziok Krasori etxea erosi nahi zionean, honek onartu zuela, baina baldintza bakar batekin: han zeuden sei zuhaitzen jabe jarraitzen izatea. Honen ondoren Pliniok hau idatzi zuen:

“Esos árboles eran unos almeces, [...], y se mantuvieron -ya que hemos hablado también de la vida tan larga de los árboles- verdes y lozanos gracias a los cuidados hasta el incendio del emperador Nerón, si aquel emperador no hubiera precipitado incluso la muerte de los árboles”³⁴.

³² Tac. *Ann.* 15.39.

³³ *Ibid.*, 15.44.1-2.

³⁴ Plin. *HN.* 17.5.

Beraz, argi ikusi daiteke Pliniok Neron jarri zuela sutearen eta zuhaitz hauekin amaitu izanaren errudun bezala. Gainera, Plinio Zaharraren lanak beti hartu izan dira nahiko objetibotzat, bere iritzian apolitikoak izanik, beraz, pasarte hau nahiko garrantzitsua dela esan daiteke³⁵.

Oktavia tragedian informazioa aurki ditzakegu ere. Obra Pseudo-Senekari esleitzen zaiona, nahiz eta hau oso polemikoa izan. Neroni bere emaztea Oktavia hiltzeko proiektua egozten dio eta kritika egiten dio enperadoreari, erromatarren artean eramandako errepresioagatik, bere emaztea Oktaviaren gaitzespenagatik erromatarrek izan zuten kontrako erreakzioen ondorioz. Bere emaztearen hilketari aurrera eramanez, eta Erromako herriaz mendeku hartzeko hiriarri su eman zion³⁶.

3.3.2. Nahigabe emandako sutea

Egungo historialarien artean onarpen gehien duen teoria da hau, ikertzaile gehienak bat datoz eta sutearen hedapena halabeharrez sortu zela onartzean. Kontuan izan behar dugu 1950eko hamarkadatik aurrera, kritizismo historiko berrituaren berpizteak Neronen irudi polemikoa berrikusteko eta berrinterpretatzeko balio izan zuela. Horretarako, iturri idatzi guztien (historikoak ez direnak barne) berrikuspen kritikoa egin zen. Iturri epigrafiko, numismatiko eta arkeologikoen eragin erabakigarria izan dute garai honen azterketaren inguruan interpretazio historiko berria lortzeko. Izan ere, azken urteetan Neronen eta bere garaia inguruko ikerketak aurrerapen handiak izan ditu³⁷.

Suaren zabalpenerako faktore nagusiak kontuan hartu behar ditugu: beroa, giroaren lehortasuna, haizea, dendak eta etxebizitzaren antolamendu txarra, kale eta etxeetako desordena, haien eraikuntza txarra, kaltetutako jendearen nahasmena... Honen ondorioz, egungo joera da sutearen egile zehatzik ez egoztea. Litekeena da, ordea, Erromak jasan zituen beste sute batzuk bezain ustekabeko jatorria izatea, nahiz eta hauek ez izan hondamen-dimentsio hain handiak, ezta herriaren erreakzioa, ezta neroniar agintaldiak pairatu zituen ondorio sozialak eta politikoak. Honen harira, litekeena da giza eta galera materialen handitasuna izatea herri-erreakzio horren arrazoi

³⁵ Ibid., 17.5. Ikusi: Picón García, "El incendio", 205.

³⁶ Ps.Sen. *Oct.* 826-834. Ikusi: Álvarez Cineira, D. 2018. "La persecución neroniana de los cristianos tras el incendio de Roma (Tácito, *Anales XV*)". *Salmanticensis*, 66 vol, 1 zb, 24-25 & Picón García, "El incendio", 206.

³⁷ Fernández Uriel, "Nerón y neronismo" 201.

garrantzitsuena, baina erreakzio horrek une sozio-politiko mesedegarria aurkitu zuen, inperioko egoera kritiko eta gatazkatsua zela-eta. Atsekabe politikoa eta barne desegonkortasuna faktore indartsua izan ziren sutearen erantzunkizuna egile posible batzuen gain jartzearen herri-eskakizunak elikatzeko, eta biktimen haserrea eta nahigabea haien gainean erortzeko. Horregatik, iturri literarioek eragile ezberdinak izendatzen dituzte³⁸.

Iturri literarioei dagokionez, Tazitok 13. liburuaren hasieran bere lana aurrera eramateko iturri bezala erabilitako hiru autoreak izendatzerakoan, Plinio Zaharra, Klubio Rufo eta Fabio Rustiko, posible da azkena izatea teoria hau defendatu zuena, beragandik jasotako berrien arabera ez baita ikusten enperadorearenganako kritikarik. Honetaz aparte, Tazitok esan zuen bere garaian ez zegoela sutearen kausari buruzko ziurtasunik³⁹. Izan ere, Tazito irakurtzerakoan ez du Neron sutearen eragile moduan jartzen., Suetoniok eta Dion Kasiok, berriz, hau egiten dute.

3.3.3. Erromako lehen komunitate kristauak sustatua eta hauek pairatutako jazarpena

Autore klasikoen artean, Neronen agintaldiaren kontestuan kristauei buruz gehien hitz egiten duena Tazito da. Suetoniok gutxi kontatzen du eta Dion Kasiok ez dute ezer esaten hauei buruz.

Suetoniori dagokionez, berak esaten du Neronek kristauak jazarri zituela, superstizio berri eta maltzur batera entregatuta zeuden leinu bat bezala deskribatuz⁴⁰.

Tazitok kontatzen du Neronek kristauak seinlatu zituela sutearen errudun gisa, azken hau hark eragin zuenaren sinesmena desagertzeko asmoz. Historiagile erromatarrak azaldu zuen kristauek Kristoren izena hartzen zutela, Pontzio Pilatos prokuradoreak exekutatu zuena Tiberioren gobernuan. Hauen superstizioa erreprimtua izan zen, baina Neronen agintaldian indarra hartu zuen berriz, bai Judean, bai Erromako hirian. Kontua izan zen bere fedea argi eta garbi aitortzen zutenak atxilotuak izaten hasi zirela eta gero, hauen salaketaz, jende gehiago atxilotua izan zen. Kristauak umilduak izan ziren: Basapiztien larruz estalarazi ondoren, txakurrek zartatuta hiltzen ziren edo eguna

³⁸ Fernández Uriel, "El incendio de Roma del año 64", 66-67.

³⁹ Picón García, "El incendio", 210-211.

⁴⁰ Suet. *Ner.* 6.16.2.

joatean, gurutzeetan iltzatuta, gauez argi gisa erabiltzeko moduan erretzen zituzten. Neronek bere lorategiak eskaini zituen ikuskizun hauek aurrera eramateko, eta zirku-jaialdiak ematen zituen plebearekin nahasturik, aurigazko jantziarekin edo gurdian igota. Horregatik, jendeak errudun gisa ikusi arren eta zigorrik handienak merezi bazituzten ere, errukia eragiten zuten, bakar baten ankerkeria asetzeagatik eta ez ongizate publikoagatik hiltzen zituztenaren ideia zegoelako⁴¹.

Hala ere, Tazitoren pasarte oso eztabaidagarria izan da historian zehar. Kontuan izan behar dugu K.o. I. mendeko bigarren erdialdeko idazleek (hala nola Seneka, Juvenal, Martzial, Plutarko, Epikteto...) ez zutela ezer esan suteari buruz, aurkitzen dugun erreferentzia bakarra Plinio Zaharrarena da. K.o. II. eta III. mendeetara jo behar dugu honen erreferentziak aurkitzeko. Tazitoren pasarteak hainbat arazo aurkezten ditu, hauetako bat kristauen eta sutearen arteko erlazioa izanik. Arazoa da Suetoniok eta Dion Kasiok ez dutela honi buruz hitz egiten, eta Neroni buruzko kristau tradizio zaharrenak ere ez ditu sutearekin lotzen kristauen aurkako pertsekuzio-neurriak, eta ez da arduratzen hiriyari su ematearen salaketari aurka egiteaz. Hau dela-eta XIX. mendearen amaierako historiagile batzuek Tazitoren pasarte faltsutzat hartu zuten, esanez K.o. II. mendeko gertaeren erromantizazioa zela. Nahiz eta gaur egungo aditu batzuk hau defendatzen duten, ez da teoria hau onartzen, pasartean ez dagoelako testu faltsu batetik espero litezkeen gehiegikeriarik. Gainera, Kristauak ez dira ongi geratzen pasartean. Suposatzen da Tazitok errugabeak zirela uste zuela, baina argi eta garbi etsai gisa aurkezten ditu. Hori dela-eta, sute handia eta kristauen aurkako Neronen zigorrak Tazitok konektatu zituen bi gertaera diferente zirela argudiatu da⁴². Badaude beste teoria asko, adibidez, B. Shawek, Princentoneko unibertsitateko historiagilea denak, esaten du Neronek aurrera eramandako kristauen jazarpena mito bat dela, ez zela inoiz gertatu⁴³. Gertakizun hau kantitatean eta kalitatean pobreak diren iturrietan oinarritzen da. Bere ustez gertatu zena hau izan zen: Neronen irudia kristauekin zegoen lotua nolabait, hau dela-eta, su handiaren ondoren zigor gogorrak jaso zituzten errudunak kristauak bezala izan dira identifikatuak, baina hauek ez ziren kristauak jatorrian⁴⁴.

⁴¹ Tac. *Ann.* 15.44.2-5.

⁴² Álvarez Cineira, "La persecución", 7-10.

⁴³ Shaw. B.D. 2015. "The myth of the neronian persecution". *Journal of Roman Studies*, 105 zb, 74.

⁴⁴ *Ibid.*, 91-93.

Gainera, Tazitoren pasartean hainbat kontraesan daude, hala nola, Pontzio Pilato prokuradore bezala agertzen da eta, hau tradizio kristauek hartu zuen, errealitatean *praefectusa* zelako. Ez du xehetasunik ematen sutearen eta zigorren artean pasatu zen denborari buruz, ezta prozesua gauzatzeko ardura zuen agintaritzari buruz⁴⁵.

Zaila da jakitea nondik atera zuen Tazitok kristauen jazarpenari buruzko informazioa, posible da Plinio Gazteak ematea (Trajanoren garaian kristuak buruz ikertzen ibili zen) edo Tazitok berak kristuak buruz ikastea Asia Txikiko prokotsula izan zenean (K.o. 112/113)⁴⁶.

Tazitoren kontaketa kontuan hartzeak bi galdera plazaratzen ditu: zergatik jarri zituen Neronek kristauak errudun gisa? eta nola identifikatu zituen Jesusen jarraitzaileak? Lehenengoari dagokionez, autore batzuk uste dute hau ezinezkoa dela jakitea, beste batzuen ustez hau gertatu zen kristauak atzerritarrak zirelako. Atzerritarrak ziren jatorriari eta sinismen eta praktikei dagokionez, ez zirenak erromatar jatorrikoak eta ez zutenak erromatar bizimodua bermatzen⁴⁷. Nahiz eta erromatar gizartea nahiko tolerantia izan atzerritar eta dibertsitatearekin, atzerriko ohiturak eta sinismenak erromatarren baino txarragoak zirelaren ustea zegoen. Hala ere, galderari erantzuna ematen dion arrazoi argirik ez dago. Momentu horretan hirira heldu berri ziren judaismoaren talde marginalak ziren eta gainera, K.o. 49ko liskarretan parte hartu zuten. Hau kontuan harturik, nahiko zaila zen kristauak erromatar elite politiko eta sozialarekin erlaziorik izatea, beraz, zaila da sutearen errudunak izatea. Honetaz aparte, komunitate kristaua ez zen oso handia ezta problematikoa garai horretan, beraz, zaila da pentsatzea garai hartan sutearen errua leporatzeko eta ondorengo zigorrak jasotzeko bezain gorrotatuak zirela⁴⁸.

Bigarren galderaren erantzunaren zati bat Tazitoren pasartean aurkitu ahal dugu:

⁴⁵ Álvarez Cineira “La persecución”, 17-18

⁴⁶ Ibid., 16-17.

⁴⁷ Izan ere, Tazito eta Suetoniok haien praktika erlijiosoa superstizio gaitsezgarri eta maltzur baten moduan deskribatu zuten. Tac. *Ann.* 15.44.3; Suet. *Ner.* 6.16.2.

⁴⁸ Álvarez Cineira “La persecución”, 18-20.

“se empezó por detener a los que confesaban abiertamente su fe, y luego, por denuncia de aquellos, a una ingente multitud, y resultaron convictos no tanto de la acusación del incendio cuanto de odio al género humano”⁴⁹.

Hau da, atxilotuak izan ziren lehenak bere fedea aitortu zutenak izan ziren, ondoren, pertsona hauek beste kristauen izenak eman zituzten, autoritate erromatarrak atxilotu eta errudun gisa jarri zituztenak⁵⁰. Ez dago argi nork bota zien errua kristauei hasiera batean. Espekulazio hutsa da, baina posible da Neron bera izatea. Era berean, ezin da baztertu Neronek errudun bat behar zuelaren eta norbaitek kristauak proposatzearen aukera. Jakintsu batzuk proposatu dute Erromako hirian bizi zen komunitate juduak burutu zuela lehenengo akusazio hau. Juduek talde liskartizat hartzen zituzten kristauak eta hauetatik aldendu nahi ziren. Sute Handia kristauak inplikatzeko aukera gisa ikusi zuten, hiria uztera behartuko zituztelaren esperantza zuten. Gainera, Jesusen jarraitzaileak salatuz komunitate juduak autoritate inperialekin kolaboratzen zuen, era honetan enperadorearekiko leialtasuna erakutsiz eta Erroman zuten posizioa babestuz (hau oso garrantzitsua zen, K.o. 49ko errebolta eta buruzagi juduen kanporaketaren ondorioz komunitate juduak bere estatusa mantentzeko beharra zuen eta). Plazaratu da Popea, Neronen emaztea, juduen aldekoa zela eta kristauen jazarpenean lagundu ahal izan zuela. Teoria honek defendatzen du Jesusen jarraitzaileak ezagutu zituela juduekin zituen kontaktuei esker (esan ziotenak kristauek arazoak sortzen zituztela inperio osoan zehar). Hau dela eta Neroni aurkeztu zion kristauak sutearen errudun bezala, era honetan enperadorearen inguruan zeuden zurrumuruak alde batera utziz. Beste autore batzuen arabera ez ziren juduak izan Jesusen jarraitzaileak errudun bezala seinatu zituztenak, kristauak baizik. Hau da, kristauen artean barne gatazkak egon ahal izan ziren⁵¹.

Honetaz aparte, kristauak errudun bezala jartzeko beste argumentu bat beraiek bizi ziren auzoak ez erreatzearena izan zen. Hau da, Trastevere eta V, VII eta XII eskualdeek ez zuten kalterik jaso, sutik salbatu egin ziren⁵². Kasualitate edo ez, kristauak auzo hauetan bizi ziren eta faktore honek susmagarri bilakatu zituzten. Argi dagoena da jazarpenaren

⁴⁹ Tac. *Ann.* 15.44.4.

⁵⁰ Ibid.

⁵¹ Álvarez Cineira “La persecución”, 20-23.

⁵² Picón Garcíaen arabera I. eskualdea ez zen kaltetua izan, berriz, XII.enak suaren ondorioak pairatu zituen, nahiz eta neurri txiki batean izan. Ikusi: Picón García, “El incendio”, 200.

arrazoi zehatza ez dakigula. Hau gertatu ezkerro Erromako hirira mugatu zen, hau da, espazio- eta denbora-mailan mugatua zegoen, izan ere, jazarpen hau inperio osoan eman ezkerro informazio gehiago edukiko genuke iturri literarioetan⁵³.

3.3.4. Pisonen konspirazioaren kideek egindakoa

Hipotesi hau Tazitoren pasarte batean oinarritzen da. Honetan Tazitok kontatzen du Subrio Flavo, Pisonen konjurazioan parte hartu zuena, Neron erailtzen saiatu zela sutean zehar, kantu egiten zuenean edo gauean zehar, bere etxeak su hartu zuenean eskolta barik zebilelako⁵⁴.

Pisonen konjurazioa Neron enperadorearen aurkako konplot bat izan zen, K.o. 65. urtean eman zena⁵⁵. Taldea 65ean deskubritu zuten, baina aurreko udatik zueden antolatuak, izan ere, *Aula Neronianaren* politika boikotatzeko lan egin zuten. Gainera, suteak eragindako nahasmenduak konspiraziorako aukera paregabea izatera gonbidatzen zuten, enperadorea hiltzeko aukera zabalduz. Honetaz aparte, sutea biderik egokiena izango litzateke Neronen erruduntasuna hedatzeko herriaren artean. Era honetan, honen nahigabea piztuz eta Erroman gatazka sozial berri bat sortuz⁵⁶.

Hala ere, hipotesi hau ez da onartua izan historigileen artean, batez ere, ez delako aurkitu teoria hau defendatu ahal duen iturri fidagarriarik. Izan ere, Flavioren gertakaria egia izan ezkerro, posibleena da Pisonen konjuraziotik independientea izan zen erreakzio pertsonal bat izatea. Pentsatzen dena da sutea modu eraginkorrean aprobetxatu zutela neronismoaren etsaiek publizitate negatiboa eta ezarritako erregimenarekiko nahigabea hedatzeko⁵⁷.

Pisonen konspirazioaren hiru kideek bizitza galdu zuten konjurazioaren ondorioz, hauen artean Subrio Flaviok⁵⁸. Azken hau epaitua izan zenean hau esan zion Neroni:

⁵³ Álvarez Cineira “La persecución”, 23.

⁵⁴ Tac. *Ann.* 15.50.4.

⁵⁵ Gehiago jakin nahi ezkerro: Pagán, V.E. 2004. “The Pisonian conspiracy”, in *Conspiracy Narratives in Roman History*. Austin, TX: University of Texas Press, 68-90.

⁵⁶ Fernández Uriel, “El incendio de Roma del año 64”, 69-70.

⁵⁷ Fernández Uriel, “El incendio de Roma del año 64”, 70 & Picón García, “El incendio”, 210

⁵⁸ Álvarez Cineira “La persecución”, 13.

“Te odiaba; y ninguno de tus soldados te fue más leal mientras mereciste ser amado; empecé a odiarte cuando te convertiste en asesino de tu madre y de tu esposa, en auriga y en histrión y en incendiario”⁵⁹.

Irakurri daiteke enperadoreak egindako akzio gaitsezgarrien artean, sutea azkena zela. Hau da, Flaviok ez zuen onartu konjurazioaren taldeko kideek sutea eragin zutela, Neronek baizik⁶⁰.

4. SUTEAREN ONDORIOAK ERROMA HIRIAN ETA INPERIOAN⁶¹

4.1. Hiriko topografiaren aldaketa. *Domus Aurea*ren eraikuntza

Hiriak aldaketa asko jasan zituen sutea zela-eta, Tazitoren hitzetan oso zaila zen zenbatzea desagertu ziren etxe, etxadi eta tenpluak; baina gurtza tokirik zaharrenak galdu zirela azaltzen du, hala nola, Servio Tuliok Luzinari dedikatu zion aldare handia, Evandro arkadioak Herkules Laguntzaileari kontsakratutako kapera, Romulok eskainitako Jupiter Estatoren tenplua, Numaren palazioa eta erromatar herriaren Penate jainkoak zituen Vestaren santutegia. Honetaz aparte, garaipenetan irabazitako aberastasunak, greziar artearen edertasunak, literaturaren lekuko zahar eta ukiezinak galdu ziren ere⁶². Hiriaren zatia handi bat (bere jauregiak hartu ez zuen hiriaren zatia) ez zen berreiraikia izan, baizik eta etxadien lerrokadura ordenatu zen, kaleak zabaldu ziren, eraikinen altuera mugatu zen eta espazio irekiak utzi ziren. Azken hauetan blokeen fatxada babesten zuten arkupeak eraiki ziren, hau Neronen aginduetan egin zen eta berak ordaindu zuen. Etxebizitzen jabeak zirenak hondakinik gabeko orubeak jaso zituzten, honez gain sariak gehitu zituen, bakoitzaren familiaren egoera eta dirutzaren arabera, hauek lortzeko epe bat ezarriz. Etxeak eta etxadiak eraikitzen amaitu zutenek lortu ahal zituzten sari hauek. Hondakinak Ostiako zingiretara eraman ziren, eta printzeak agindu zuen Tiberretik gariz beterik igotzen ziren itsasontziak hondakinez beterik jaistea. Beste agindu batzuk hauek izan ziren: eraikinen zenbait zati harriz eginak egotea, suari erresistentea delako; uraren zaindariak egotea, ur eta iturri publiko gehiago egoteko asmoz; etxebizitza bakoitzak harresi bat izatea. Era honetan beste sute bat ekidin ahal zuten elementu asko gehitu ziren. Neurri haiek hiriaren edertzea ekarri

⁵⁹ Tac. *Ann.* 15.67.2.

⁶⁰ Ibid.

⁶¹ Kristauek pairatutako jazarpena sutearen ondorio bat dira ere, baina nahiago izan dut hau 3.3.3. puntuan jorratzea.

⁶² Tac. *Ann.* 15.41.1.

zuten, baina askok pentsatu zuten hau ez zela higienikoa, aire zabaleko espazioek ez zutelako eguzkitik babesten, bai ordea, sutea baino lehenagoko kale estuek eta eraikuntza altuek⁶³.

Suetoniok ere izendatzen zituen suaren ondorioz suntsituak izan ziren elementuak, hala nola, alokairuan zeuden etxeak, antzinako jeneralen palazioak, inauguratutako eta *voto*an eskainitako tenpluak. Azaltzen zuen ere nola Neronek katastrofe honetatik onura handiena lortzeko asmoz, agindu zuen bere kontura kenduko zituela gorpuak eta hondakinak, eta ez zuen inor hondatutako etxeetara hurbiltzen utzi. Sariekin, batzuk borondatezkoak, beste batzuk inposatuak, porrot ekonomikoaren zorian jarri zituen probintziak eta partikularren ondareak⁶⁴.

Dion Kasiok idatzi zuen hiriak jasandako hondamenak ez zuela parekorik izan Erromako historian, galiarren inbasioaren kasua kenduta. Palatino muino osoak, Tauroren antzokiak eta hiriaren ia bi herenek su hartu zuten, eta ezin konta ahala zenbat pertsona hil ziren. Honen arabera, Neronek, sua aitzakitzat hartuz, diru kopuru handiak bildu zituen, hiritar pribatuena eta komunitatearena zen dirua, batzuetan mehatxupean, sutea aitzakiatzat hartuz, eta, batzuetan, borondatezko ekarpenetatik eskuratuz⁶⁵.

Neronek sutearen ondorioak aprobetxatu zituen *Domus Aurea* edo Urrezko Etxea eraikitzeko. Jakina da Neronek gogoko zuela artea eta kultura. Honegatik, bere jauregia finantziatzeko kostuak ez zitzaizkion inporta eta beste gauza asko alde batera utzi zituen artearen mesedeetan. Baina proiektu hau ez zuen hasi sutea zela-eta. Esan liteke, Neronek eraikuntza hura buruan zuela bere gobernuaren lehen egunetik eta fidel mantendu zela ideia hartara. Izan ere, proiektua K.o. 60 inguruan hasi zela esan daiteke, nahiz eta data zehatza jakitea zaila izan⁶⁶.

*Domus Aurea*ren jatorriaren erreferentzia famatuena Suetoniok eskaintzen digu. Bere hitzetan, Neronek bere jauregia Eskilino muinora arte zabaldu zuen, honi *Domus Transitoria* izena emanez. Hau sutearen ondorioz suntsitu zen, beraz, beste jauregi bat

⁶³ Ibid., 15.43.

⁶⁴ Suet. *Ner.* 6.38.2-3.

⁶⁵ D.C. 62.18.2-5.

⁶⁶ Ball, L.F. 2003. *The Domus Aurea and the Roman architectural revolution*. Cambridge: Cambridge University Press, 1-2.


eraiki zuen, *Domus Aurea* izenekoa, handiagoa zena eta luxuz beteta zegoena⁶⁷. Bi izen hauek arazo kronologiko eta topografikoak aurkezten dituzte, Neron palazio baten proiektuan egon zelako lan egiten bere errenaldian zehar. Berak ez zuen intenziorik bi diseinu edo eraikuntza fase egiteko, ezta eraikuntza lana gelditzeko eta berriz hasteko. Neronek era askotako mugak izan zituen bere jauregia eraiki eta hobetzeko unean, baina muga hauek aldatu ziren K.o. 64ko sutearen ondorioz. Beraz, pentsatzen dena da Suetoniok izendatutako *Domus Transitoria* sutearen aurreko proiektua izan zela eta *Domus Aurea* sutearen ondorengo jauregia⁶⁸.

Suteak jauregiaren jatorrizko proiektua aldatu zuen. Alde batetik, *Domus Transitoria* suntsitua izan zelako (Eskilino muinoa oso kaltetua geratu zen), berreraikia eta hobetua izan zena. Bestetik, suteak utzitako hondakinen hedadura handiaren ondorioz, Neronek eta bere arkitektoek anbizio handiagoko diseinu eraiki ahal izan zuten. *Domus Aurea* ez zen *Domus Transitoria* baino askoz handiagoa izango, baina konplexuagoa eta gogotuagoa izango zen. Gainera, aprobeztatu egin zuen lehenengo jauregian gustatzen ez zitzaizkion elementuak aldatzeko. Urrezko Etxea ez zen bakarrik Palatinoko egoitza inperiala, Eskilino eta Zelio muinoak eta hauen arteko arana hartzen zuen gunea zen ere. Gaur egun Koliseoa dagoen tokia da hau. Egitura arkitektoniko handiena Palatinoan zegoen (normala zena, dinastia Julio-Klaudiarrak hor bizi izan zelako), haranean laku artifizial bat zegoen, Zelio muinoan ezezaguna den eraikuntza bat, eta azkenik, Eskilino hegoaldeko aldapan luxuz beteriko *villae* bat zegoen, gaur egun hobeto kontserbatu den gunea izanik. Hauetaz aparte, beste egitura txikiago batzuk zeuden *Domus Aurea* barruan⁶⁹.

⁶⁷ Suet. *Ner.* 6.31.

⁶⁸ Ball “*The Domus Aurea*”, 2.

⁶⁹ Ball “*The Domus Aurea*”, 3-5.



Domus Aurearen topografia. Iturria: Ball “*The Domus Aurea*”, 5.

Tazitok eta Suetoniok ondo deskribatu zituzten *Domus Aurea* zituen luxu guztiak. Kanpoaldea ikaragarriena zen, hemen, Neronen estatua kolosala zegoen, hogeit hamar metroko altuera zuena eta zutabezko hiru ilara zituen portiko batek inguratzen zuena; itsasoa imitatzen zuen laku bat, hiri baten itxura ematen zioten eraikinez inguratua; lautadak, gariz betetako sailak, mahastiak eta artaldeak eta piztiz betetako basoak zeuden. Barrualdea urrezkoa zen, nakar eta perlekin dekoratua, hau luxu arrunta izanik garairako; jangelen sabaia marfilezkoa zen; gelarik ederrena zirkularra zen eta biratu egiten zuen, lurraren mugimendua imitatuz; bainuetara itsasoko ura heltzen zen⁷⁰. Dion Kasiok ez du ia ezer esaten *Domus Aurea*ri buruz, egiten duen aipamen bakarrean Viteliori buruz hitz egiten du, esanez Neronen Urrezko Etxeak ez zuela hau asebetetzen⁷¹.

⁷⁰ Tac. *Ann.* 15.42.1; Suet. *Ner.* 6.31.

⁷¹ D.C. 65.4.



Gela borobila gaur egun gela oktagonala bezala ezagutzen denarekin identifikatu da. Hau da bere egoera gaur egun (<https://parcocolosseo.it/es/area/domus-aurea/>, 2022ko maiatzaren 11an ikusia)⁷².

4.2. Inperioaren krisi ekonomikoa

Hasteko, kontuan izan behar dugu K.o. 64. urtean Neronek diru-erreforma bat eraman zuela aurrera. Erromatar txanpongintzaren historian gertaera garrantzitsu eta eztabaidagarrienetarikoa bilakatu da. Luzea eta konplexua da gai honen inguruan sortutako tradizio historiografikoa, bere periodizazioa, esanahia eta ondorio ekonomikoak oraindik ere eztabaidak sortzen dituzte. Erreforma une hartan indarrean zueden moneta desberdinen devaluazio desorekatuan oinarritu zen. Honetarako, seguraski Erromako historia osoko aureo jaulkipen masiboenak eman ziren, adibidez, inperio mendebalde hirietako merkatuetan zirkulazioan zeuden txanpon kopurua biderkatu zen⁷³. Aureoen jaulkipena hain handia izan zen denarioa devaluatzeko asmoa

⁷² Gehiago jakiteko begiratu: Mar, R. 1994. “Los palacios imperiales, Nerón y la *Domus Aurea*”. *Butlletí Arqueològic. Reial Societat Arqueològica Tarraconense*, 16, 60.

⁷³ De la Hoz Montoya, J. 2009. *Perspectivas económicas del reinado de Nerón. Producción monetaria y suministro de metales*, (Doktoretza Tesia, Depósito de Investigación de la Universidad de Sevilla), 6. & De la Hoz Montoya, J. 2005. “Nerón y el desarrollo institucional de la economía de mercado”, *Annaeus: Anales de la Tradición Romanística*, 2, 121.

zuelako Neronek, baita, armadako buruzagi gorena bihurtu nahi zelako, eta hainbeste diru izanik lortzeko asmoa zuen. Aipatzeko da hau Sute Handia eman baino lehen burutu zen prozesua izan zela, baina honek eragin handia izan zuen gastuaren lehentasunetan eta modalitateetan, eta, beraz, diru-eragiketa handiaren eskala eta jaulkipen-erritmoetan ere⁷⁴. Egoera honek testuinguru ezinhobea aurkeztu zuen eskuzabaltasun inperiala hedatzeko. Hala ere, erreformak porrot egin zuen, aureo jaulkipen masiboak abantaila asko izan ahal zituelako, baina inflazioak gora egitearen arriskua zuen⁷⁵. Hau gertatu zen, prezioek gora egin zuten, gainera, sutearen ondorioz inflazioa gehiago handitu zen⁷⁶.

Kontuan izan behar dugu ere Neronek finantza-neurriak eta berreskuratze-plan orokorrak aurrera eramane zituela⁷⁷. Suteak goi-klaseko kideen artean eragin pertsonala eta zuzena izan zuen. Hauen artean zaldun klaseko kiderik aberatsenak zeuden ere, diru asko kendu zieten berreraikuntza ekonomikoa bilatzeko asmoz⁷⁸. Tazitok azaldu zuen etxe eta etxadiak berreraikitzen zutenek diru laguntzak jaso zituztela, hau lortuz Neronek jarritako epe batean egin ezker. Enperadoreak suntsitutako portikoak bere kontura berreraikiko zituela promestu zuen⁷⁹. Jendea gosez ez hiltzeko gariaren prezioa jeistea agindu zuen ere⁸⁰. Suetoniok ere idatzi zuen sari hauei buruz, esanez hauek boluntarioak edo inposatutakoak izan zirela, baita sarien erruz probintzia eta gizabanakoen ondarea porrotaren zorian geratu zela. Azaldu zuen Neronek bere kontura ordainduko zituela gorpuak eta hondakinak, eta ez zuela inor haien suntsitutako etxetara hurbiltzen utzi⁸¹. Dion Kasioaren hitzetan Neron diru kopuru handiak biltzen hasi zen sutea aitzakitzat hartuz. Hau hiritar pribatuetatik eta komunitateetatik lortu zuen, batzuetan mehatxupear, besteetan borondatezko ekarpenetatik eskuratuz⁸².

⁷⁴ De la Hoz Montoya, J. 2009. "Oro y plata en la política monetaria de Nerón", in *Interventi imperiali in campo economico e sociale, de Augusto al Tardoantico*. Bari: Edipuglia, 100-103.

⁷⁵ Barrett, A.A. 2020. *Rome is Burning. Nero and the fire that ended a dynasty*. Oxford: Princeton University Press, 246.

⁷⁶ García Morcillo, M. 2000. "El *macellum magna* y la Roma de Nerón". *Iberia: Revista de Antigüedad*, 3, 283.

⁷⁷ Beaujeu, J. 1960. "L'incendie de Rome en 64 et les Chrétiens". *Societe d'Etudes Latines de Bruxelles*, 77.

⁷⁸ Barrett, "Rome is Burning", 233.

⁷⁹ Tac. *Ann.* 15.43.2-3.

⁸⁰ *Ibid.*, 15.39.2.

⁸¹ Suet. *Ner.* 6.38.3.

⁸² D.C. 62.18.5.

Era honetako hondamendi batek gastu handien beharra sortzen du, eta gastu horiek finantzatu egin behar dira, baina litekeena da diru-sarrera gutxi izatea eskuragarri finantziario horri aurre egiteko. Neronen garaiko kasuan, ez dugu zerrenda zehatzik, baina nahiko erraza da jakitea zeintzuk izan ziren izandako arazoak: enplegua jeitsi zen, lehengaiak galdu ziren eta etxebizitza gutxi geratu ziren. Horrek guztiak haserre orokorra areagotzea ekarriko luke, finantza- eta ekonomia-arazoak larriagotuz. Sutean suntsitutako eraikinetako hondakinak eta gorpuak Neronen kontura erretiratzeko agindua harrapakinak eskuratzeko plan gisa hartu zen. Ekonomikoki urte oso gogorrak izan ziren, suteaz aparte, azaldutako diru-erreformak ondorio ekonomiko txarrak ekarri zituen Erromara eta enperadoreak hainbat neurri hartu behar izan zituen hauek konpontzeko⁸³. Altxor publikoarekin diru eskakizun handiak estali zituen, ondorioz, diru-sarrerak handitzeko ikaragarritzko premia zegoen⁸⁴. Tazitok idatzi zuen Italia suntsitua izan zela ondasunak biltzeko, baita probintziak, aliatuak eta hiri libreak ere. Jainkoak ez ziren libratu honetaz ere, Erroman tenpluak arpilatu eta erromatar hiritarrek belaualdiz garaipenetan eta botoetan lortutako urrea pilatu zen⁸⁵. Kontuan izan behar dugu hiriaren berreskurapenaz aparte, *Domus Aurea*ren eraikuntza finantzatu behar zuela, honek egoera are gehiago zailduz. Gainera, gizarteko klase guztiek izan zituzten arazo ekonomikoak. Aberatsek bere etxeak eta alokatzen zituzten etxadiak galdu zituzten, eta hauek berreraikitzea kostu handi bat zekarren. Behe-mailakoek beste etxe bat alokatzeko beharra zuten, lehen zeuden *insulae*ak suntsituak izan zirelako. Baina etxebizitza berria garestiagoa zen haientzat, etxadietako jabeek alokairuaren prezioa igo zutelako, diru-sarrerak handitzeko asmoz, era honetan, pobrea zen jendeaz aprobeztatuz⁸⁶.

Erromako zilarrezko txanpona, denarioa, bere merkataritza-jardueraren euskarria, lehen aldiz debalatu zen K.o. 64 otsailean, hau da Neronek egin zuen lehen aldiz. Ia seguru sutearen ondorengo finantza-krisiak egoera hau gogorragoa bilakatu zuen. Horren ondorioz, geroago denarioaren debaluazio batzuk gertatu ziren aureoarekiko, gero eta larriagoak zirenak. Honek K.o. III. mendera arte iraun zuen, "zilarrezko" txanponak ia zilarrezko ezer ez zeukan unea⁸⁷.

⁸³ Barrett, *Rome is Burning*, 233.

⁸⁴ *Ibid.*, 250.

⁸⁵ Tac. *Ann.* 15.45.1.

⁸⁶ Newbold, R. F. 1974. "Some Social and Economic Consequences of the AD 64 Fire at Rome." *Latomus*, 33, 859-687.

⁸⁷ Barrett, *Rome is Burning*, 4 & De la Hoz, "Oro y plata", 107.

5. ONDORIOAK

K.o. 64. urteko Sute Handiak hondamendia eragin zuen Erroman. Jende askok era zuzen eta izugarri batean jasan zuen, eta sugarretatik ihes egin zutenen artean oso gutxik ez zuten sentitu zeharkako eragina. Baina haren eragina ez zen momentu hartan Erromako hirian bizi zen belaunaldira mugatu, ezta hirira bakarrik. Sutea katalizatzaile bat izan zen, Neronen erregealdiari amaiera emateko batuko ziren indarrak sustatu zituen. Neronen eta erromatar gizarteko elite boteretsuaren artean sortu zuen arrakala konponezinak, enperadorearen kargugabetze eta heriotzara ez ezik K.o. 69. urtean, Augustok ezarritako dinastiaren amaierara ere eraman zuen. Momentu hartatik aurrera, balizko enperadoreek, inperioaren sortzailearekiko lotura familiarraz gain, beste kualifikazio batzuk beharko zituzten, eta, sarritan, prestakuntza horietatik garrantzitsuena gudu-zelaiko arrakasta zen⁸⁸. Dinastiaren amaiera nahiko argi komentatu zuen Dion Kasiok, orakulu baten arabera Eneasen azken semeak, ama-hiltzaile batek, gobernatuko zuela esaterakoan. Hala izan zen, Neron dinastia Julio-Klaudiarreko azken enperadorea izan zen, Eneasetik zetorrena, beraz, orakuluak esandakoa bete zen⁸⁹.

Sutearen ondoren, Erromako sistema politikoa aldaketa erradikal eta iraunkor baterantz bideratu zen. Suteak eragina izan zuen Erromako moneta-sisteman ere, eta, beraz, baita finantza-ongizatean. Emaizta horiek kalkulaezinak dira, baina benetakoak izan ziren, eta Erromaren historia ekonomikoan zehar eragiten jarraitu zuten mendeetan zehar. Hau K.o. 64. urteko sutearen beste ondorioetako bat izan zen, hiriaren eta inperioaren etorkizuneko patuari forma emateko konbinatu zen⁹⁰. Honi gehitu behar diogu herriak ondorio ekonomikoak sufritu zituela, hala nola: premiazko produktuen eskasia, etxebizitza falta, ondasun pertsonalen galera... Honen ondorioz Neronen populartasunak beherakada sufritu zuen⁹¹.

Hala ere, erromatar plebeioek Neron era positibo batean gogoratu zuten bere heriotza ostean. Suetoniok idatzi zuen hiritar batzuek hil eta denbora askora udaberri eta udako lorez apaintzen jarraitzen zutela haren hilobia. Baita, tribunara eraman zituztela Neronen erretratuak, *toga praetextarekin* irudikatuak, bertan ediktuak irakurritzen zituzten bizirik balego bezala eta bere etsaietaz mendekatzeko momentuaz hitz egiten

⁸⁸ Barrett, *Rome is Burning*, 252.

⁸⁹ D.C. 62.18.4-5.

⁹⁰ Barrett, *Rome is Burning*, 252.

⁹¹ Fernández Uriel, "El incendio de Roma del año 64", 70.

zuten. Izan ere, hogei urte beranduago, Neron faltsu bat agertu zen Partiar Inperioan, Suetonioren arabera partiarren artean onarpen handia izan zuena. Azkenean, esfortzu handiak egin eta gero beltzatzalea entregatu zen. Beste bi pertsonak honen adibidea jarraitu zuten, Tito eta Domizianoren agintaldian zehar⁹². Honetaz aparte, Neronen ondoren egon ziren enperadoreek, Galbak, Otonek eta Viteliok, azken Julio-Klaudiarraren inguruan nostalgia sustatu zuten, herriaren onspena jasotzeko asmoz⁹³.

⁹² Suet. *Ner.* 6.57. Ikusi: Fernández Uriel, “Nerón y neronismo”, 213.

⁹³ Fernández Uriel, “Nerón y neronismo”, 214-215.

6. BIBLIOGRAFIA

6.1. Bibliografía moderna

- Álvarez Cineira, D. 2018. “La persecución neroniana de los cristianos tras el incendio de Roma (Tácito, *Anales XV*)”. *Salmanticensis*, 66 vol, 1 zb, 7-50.

- Ball, L.F. 2003. *The Domus Aurea and the Roman Architectural Revolution*. Cambridge: Cambridge University Press.

- Barrett, A.A. 2020. *Rome is Burning. Nero and the Fire that Ended a Dynasty*. Oxford: Princeton University Press.

- Beaujeu, J. 1960. “L’ incendie de Rome en 64 et les Chrétiens”. *Societe d’Etudes Latines de Bruxelles*, 19, 65-80.

- De la Hoz Montoya, J. 2005. “Nerón y el desarrollo institucional de la economía de mercado”. *Annaeus: Anales de la Tradición Romanística*, 2, 93-122.

- De la Hoz Montoya, J. 2009. *Perspectivas económicas del reinado de Nerón. Producción monetaria y suministro de metales* (Doktoretza Tesia, Depósito de Investigación de la Universidad de Sevilla).

- De la Hoz Montoya, J. .2009. “Oro y plata en la política monetaria de Nerón”, in *Interventi imperiali in campo economico e sociale, de Augusto al Tardoantico*. Bari: Edipuglia, 97-120.

- Fernández Uriel, P. 1990. “El incendio de Roma del año 64 : una nueva revisión crítica.” *Espacio, Tiempo Y Forma. Serie II, Historia Antigua*, 3. 61-94 .

- Fernández Uriel, P. 1991. “Nerón y neronismo. Ideología y mito”. *Espacio Tiempo y Forma. Serie II, Historia Antigua*, 4, 199-222.

- García Morcillo, M. 2000. “El *macellum magna* y la Roma de Nerón”. *Iberia: Revista de Antigüedad*, 3, 265-285.

- Ferrandes, A.F. 2011. “Il contesto topografico e la stratigrafia”, in *I segni del potere. Realtà e immaginario della sovranità nella Roma imperiale*, ed. Clementia Panella. Erroma: Sapienza-Università di Roma, 125-160.
- Mar, R. 1994. “Los palacios imperiales, Nerón y la *Domus Aurea*”. *Butlletí Arqueològic. Reial Societat Arqueològica Tarraconense*, 16, 45-86.
- Newbold, R. F. 1974. “Some Social and Economic Consequences of the AD 64 Fire at Rome.” *Latomus*, 33, 858–869.
- Pagán, V.E. 2004. “The Pisonian Conspiracy”, in *Conspiracy Narratives in Roman History*. Austin, TX: University of Texas Press, 68-90.
- Papini, M. 2016. *Arte romana*. Milan: Mandatori Università.
- Picón García, V. 1998. “El incendio de Roma del año 64 d.C.”, in *Momentos estelares del mundo antiguo*, ed. Crescente López de Juan & Domingo Plácido Suárez. Madril: Ediciones Clásicas: Sociedad Española de Estudios Clásicos, 193-219.
- Pollini, J. 2017. “Burning Rome, Burning Christians”, in *The Cambridge Companion to the Age of Nero*, ed. Shadi Bartsch, Kirk Freudenburg, & Cedric Littlewood, 212–236. Cambridge: Cambridge University Press.
- Shaw. B.D. 2015. “The Myth of the Neronian Persecution”. *Journal of Roman Studies*, 105 zb, 73-100.

6.2. Iturri klasikoen edizioak

- Bassols de Climent, M. (itzul.) 1990. *Suetonio, Vida de los Doce Césares*, Mater: Colección de autores griegos y latinos. Consejo Superior de Investigaciones Científicas: Madril.
- Del Barrio Sanz, E.; Hernández Miguel, L.A. & Moure Casa, A.M. (itzul.) 2020. *Plinio El Viejo, Historia Natural, Libros XVII-XIX*, Biblioteca Clásica Gredos: Bartzelona.

- Earnest Cary, Ph. D. (itzul.) 2007. *Dio's Roman History LXI-LXX*, The Loeb Classical Library, Londres.

- Miller, F. J. (itzul.) 1968. *Seneca: Tragedies II. Agamemnon, Thyestes, Hercules, Oetaeus, Phonissae, Octavia*, The Loeb Library, 78: Harvard.

- Moralejo, J.L. (itzul.) 1980. *Cornelio Tácito, Anales, XI-XVI*, Biblioteca Clásica Gredos, 30: Madril.